



EKINTZAILTZAKO TOKIKO PROIEKTUEN BARRUAN ENPRESA-IDEIA BERIAK SUSTATZEN DITUZTEN PERTSONENTZAKO LAGUNTZA DEIALDIAREN IRAGARKIA

<p>LAGUNTZAREN XEDEA</p>	<p>Ekintzaileak izan litezkeen pertsonen laguntzea, enpresa ideia bat sortzera, aztertzerara eta egituratzera bakarrik dedika daitezzen, ondoren ideia hori bideragarritasun plan batean zehaztu ahal izateko.</p>
<p>DIRUZ LAGUNDU DAITEKEEN JARDUKETA</p>	<p>Edozein jarduera-adarreko negozio-idea bat aztertzea eta garatzea, horretara bakarrik dedikatuko direlarik ezarritako eskakizunak betetzen dituzten sustatzaileak.</p>
<p>ONURADUNEN ESKAKIZUNAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> • EAE-n bizitzea. • Langabe egotea eta Euskal Enplegu Zerbitzuan- Lanbiden izena emanda egotea. • JEZ altan ez egotea eta Langile Autonomoen Erregimen Berezian. • Enpresa edo negozio berria ezartzeko bideragarritasun plan bat edukitzea. • Lanbidek laguntzaile gisa baimenduriko erakundeetako batean egotea ekintzailetzarako aholkularitza eta babes prozesu batean (Meatzaldeko Behargintza diru-laguntza hauek kudeatzeko erakunde laguntzailea da).
<p>PROGRAMAN PARTE HARTZEN DUTEN PERTSONEN KONPROMISOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ideia enpresariala aztertzerara eta garatzera bakarrik dedikatzea aholkularitza hasi (Meatzaldeko Behargintzaren kasuan 2014ko urriaren 29an hasiko da aholkularitza prozesua) eta hiru hilabetez. • Erakunde laguntzaileak definituriko ideia enpresarialak sortzeko eta garatzeko aholkularitza eta laguntza jarduketa guztietara joatea. • Laguntza aldia ideia enpresariala proiektu enpresarial bihurtuta amaitzea.
<p>LAGUNTZAREN ZENBATEKOA</p>	<p>Enpresa-ekimeneen sustatzaileei emango zaien gehienezko diru-laguntza 1.500 eurokoa izango da.</p>
<p>ESKAERA, AGIRIAK ETA AURKEZTEKO EPEA</p>	<p>Eskaerak Meatzaldeko Behargintzan eta Muskiz, Abanto-Zierbena, Trapagaran eta Zierbenako Tokiko Garapen Agentzietan, bulego horietan emango dizkieten eskaera-orri ofizialean, azaroaren 7a baino lehenago. Eskaerarekin batera honakoak aurkeztu beharko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona sustatzailearen NAN. • Errolda ziurtagiria. • Lanbideko DARDE delakoa. • Erakunde laguntzailearen ziurtagiria, programan parte hartzea egiaztatuko duena.